


VILLA AURORA
D MAILA

ARBÓS MUSIKARIAREN PASEALEKUA 19



Jose Antonio Elizalde, 1934

Deskribapena

Villak oinplano trinkoa du, isurki biko estalkia, eta profilean, berriz, beheko solairua, lehen solairua eta teilatupeko bigarrena ditu. Horma pikoaren fatxada simetrikoa da, eta sarrerako arkuak du ardatzean. Materialak neoeuskaldunaren erreperatoriokoak dira, zurezko teilatu-hegalak, biserapeko bilbadura-marraskia eta Z eran muntatutako zurezko pertsiak dauzkala. Albo fatxada batean terraza handi bat dauka pilastra gainean; hori, dena den, itxi egin zuten geroago. Arbós Musikariaren pasealekuko villa asko bezala, etxe hau plataforma baten gainean dago; plataformak berak hartzen du garajea, eta partzelarako sarrera-fatxada da aldi berean.

D mailako babes erregimen espezifikoa

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: portxeko itxitura.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harrizko elementuak, zurezkoak eta estalkia.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.